Asimismo, y durante la realización de las prácticas académicas las y los estudiantes deberán atender al cumplimiento de los siguientes deberes:

a)Conocer y cumplir los términos del convenio de cooperación educativa, del documento necesario para el desarrollo del proyecto formativo de las prácticas, siguiendo las indicaciones de la persona que ejerza la tutoría foral; y suscribir el documento de aceptación del convenio y de la práctica, así como el resto de los documentos necesarios para su formalización.

b)Incorporarse a la Diputación Foral de Bizkaia en la

ezarritako ordutegia betetzea.

fecha acordada y cumplir el horario previsto en el proyecto formativo.

c)Prestakuntza-proiektua garatzea, eta Bizkaiko Foru Aldundiarekin adostutako jarduerak arduraz betetzea, hitzarmenean eta Bizkaiko Foru Aldundiari aplikatu beharreko indarreko araudian ezarritako ildoei jarraituz.

c)Desarrollar el proyecto formativo y cumplir con diligencia las actividades acordadas con la Diputación Foral de Bizkaia, conforme a las líneas establecidas en él, así como en la normativa vigente aplicable a la Diputación Foral de Bizkaia.

d)Foru Aldundiaren barruko informazioa isilpean gordetzea, eta jardueren gaineko lanbide-sekretuari eustea egonaldian nahiz egonaldia amaitutakoan; horretarako, konfidentzialtasun-agiria sinatuko dute ikasleek.

d)Guardar confidencialidad en relación con la información interna de la Diputación Foral y guardar secreto profesional sobre sus actividades, durante su estancia y finalizada ésta, para lo que suscribirán el documento de confidencialidad.

e)Bizkaiko Foru Aldundiaren politikari buruz jarrera begirunetsua agertzea, nork bere unibertsitatearen izen ona zainduz.

e) Mostrar una actitud respetuosa hacia la política de la Diputación Foral de Bizkaia, salvaguardando el buen nombre de la universidad a la que pertenece.

f)Indarra duen araudian ezarritako beste edozein betebehar.

f)Cualquier otro deber previsto en la normativa vigente.

Aurreko atalean ezarritako betebeharrak bete ezean, praktika aldez aurretik azkendu ahal izango da. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundiak jakitun jarriko du ikastetxea, eta alderdien artean sinatutako hezkuntza-lankidetzarako hitzarmenean araututa dagoen moduan jokatu beharko da.

En caso de incumplimiento de los deberes previstos en el apartado anterior, la práctica podrá rescindirse anticipadamente. A tal efecto la Diputación Foral de Bizkaia lo pondrá en conocimiento del centro educativo, debiendo resolverse en los términos previstos en el convenio de cooperación educativa suscrito entre las partes.

Ikasleak praktiketara huts egin ahal izango du azterketak egiteko. Inguruabar hori hiru egun lehenago justifikatu beharko du irakaslearen aurrean. Gainerako huts-egiteak arrazoi akademikoengatik, zaintza-ardurengatik sortutako beharrengatik, osasun-arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuengatik gertatzen badira, tutoreari jakinarazi beharko zaizkio eta baimena eman beharko zaio.

El alumno o alumna podrá ausentarse de la práctica para la realización de exámenes, justificándolo con una antelación de tres días ante el tutor o tutora. Las restantes ausencias motivadas por razones académicas, por necesidades generadas por sus responsabilidades de cuidado, por motivos de salud o de otra índole deberán ser puestas en conocimiento de su tutor o tutora, debiendo ser autorizadas.

## 11-Ikastetxeko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.

## 11-Derechos y deberes del tutor o tutora del centro educativo.

Ikastetxeak izendatutako tutoreak eskubidea izango du praktiken araudiari buruzko informazioa,

La tutora o tutor designado por el centro educativo tendrá derecho a ser informada o informado de la

prestakuntza-proiektuari buruzkoa eta tutoretzapeko ikaslearen egonaldiaren baldintzei buruzkoa jasotzeko.

Bestalde, betebehar hauek izango ditu:

a)Praktiken jarraipen eraginkorra egitea, Foru Aldundiko tutorearekin koordinaturik.

b)Prestakuntza-proiektuaren aldaketak baimentzea.

c)Tutoretza-lanaren ondorioz, Foru Aldundiaren barruko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.

normativa que regula las prácticas, así como del proyecto formativo y las condiciones bajo las que se desarrollará la estancia del alumnado a tutelar.

Asimismo, tendrá estos deberes:

a)Hacer un seguimiento efectivo de las prácticas, coordinándose con la persona tutora de la Diputación Foral.

b)Autorizar las modificaciones que se produzcan en el proyecto formativo.

c)Guardar confidencialidad en relación con la información interna de la Diputación Foral que conozca como consecuencia de su actividad como tutor o tutora.

12-Bizkaiko Foru Aldundiko tutorearen eskubideak eta betebeharrak.

1.Bizkaiko Foru Aldundiak izendatutako tutoreak praktiken araudiari, prestakuntza-proiektuari eta hura garatzeko baldintzei buruzko informazioa jasotzeko eskubidea izango du.

2.Era berean, betebehar hauek izango ditu:

a)Ikasleak hartzea; ondo zaintzea lan-eremua segurua, aniztasuna errespetatzen duena eta berdintasunezko harremanak sustatzen dituena dela, eta garatu beharreko jarduera prestakuntza-proiektuan ezarritakoaren arabera antolatzea.

b)Jarduerak gainbegiratzea, eta praktikaren nondik norakoak bideratu eta kontrolatzea.

c)Ikasleei Bizkaiko Foru Aldundiaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzko informazioa ematea, bai eta intereseko araudiari buruzkoa ere, bereziki Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduera guztiei aplika dakiekeen zeharkako araudiari buruzkoa (Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, esaterako)

12- Derechos y deberes de la tutoría de la Diputación Foral de Bizkaia.

1.La persona tutora designada por la Diputación Foral de Bizkaia tendrá derecho a ser informada de la normativa que regula las prácticas, así como del proyecto formativo y de las condiciones de su desarrollo.

2.Asimismo, tendrá los siguientes deberes:

a)Acoger al alumnado cuidando que el espacio laboral sea seguro, respetuoso con la diversidad y fomente las relaciones igualitarias, y organizar la actividad a desarrollar con arreglo a lo establecido en el proyecto formativo.

b)Supervisar las actividades, orientar y controlar el desarrollo de la práctica.

c)Informar al alumnado de la organización y funcionamiento de la Diputación Foral de Bizkaia y de la normativa de interés, especialmente la normativa transversal aplicable a todas las actuaciones de la Diputación Foral de Bizkaia (como la Norma Foral 4/2018 para la Igualdad) y la relativa a la seguridad y riesgos laborales.

eta laneko segurtasunari eta arriskuei buruzkoa.

d)Ikastetxeko tutore akademikoarekin koordinatzea hezkuntza-lankidetzarako hitzarmenean ezarritako jardueren garapena, praktika normaltasunez garatzeko beharrezkoak izan litezkeen prestakuntza-proiektuaren aldaketak ere barne; eta, halaber, gerta litezkeen gorabeherak jakinaraztea eta ebaztea.

e)Behin-behineko (egoki bada) eta behin betiko txostenak ematea, 13. oinarrian ezarritakoaren arabera.

f)Praktikak egiteko behar den prestakuntza osagarria eskaintzea ikasleari.

g)Irakasle-lanaren ondorioz eta BFAko tutorea den aldetik ikasleengandik jakiten duen edozein informazio isilpean gordetzea.

h)Ikasleari laguntza ematea Bizkaiko Foru Aldundiko egonaldian zehar, ikasleak egiten dituen jardueretan sor litezkeen gorabehera profesionalak ebazteko, behar izanez gero.

i)Ikasleak aniztasun afektibo-sexualean eta genero-aniztasunean errespetatzea.

### 13-Foru tutorearen tarteko eta amaierako txostenak.

Praktikak amaitutakoan, tutoreak amaierako txostena egingo du eta ikastetxeko tutoreari eta ikasleari bidaliko die. Txosten horretan, ikasleak egindako orduen kopurua jasotzeaz gainera, prestakuntza-proiektuan aurreikusitako gaitasun orokorren eta berariazkoen hainbat alderdi ebaluatuko dira.

Praktiken iraunaldiaren erdia igarotakoan, prestakuntza-proiektuan hala ezartzen denean, tarteko jarraipen-txostena egin ahal izango da, Unibertsitateak eskatuz gero.

d)Coordinar con la tutora o tutor académico del centro educativo el desarrollo de las actividades establecidas en el convenio de cooperación educativa, incluyendo aquellas modificaciones del proyecto formativo que puedan ser necesarias para el normal desarrollo de la práctica, así como la comunicación y resolución de posibles incidencias que puedan surgir.

e)Emitir los informes intermedios, en su caso, y final a los que se refiere la base 13ª.

f)Proporcionar la formación complementaria que precise el o la estudiante para la realización de las prácticas.

g)Guardar confidencialidad con cualquier información que conozca del alumnado como consecuencia de su actividad como persona tutora de la DFB.

h)Prestar ayuda y asistencia al alumnado durante su estancia en la Diputación Foral de Bizkaia para la resolución de aquellas cuestiones de carácter profesional que pueda necesitar en el desempeño de las actividades que realiza.

i)Respetar al alumnado en la diversidad por razón afectiva, sexual y de género.

### 13-Informe intermedio y final de la tutoría foral.

La persona tutora realizará y remitirá al tutor o tutora del centro educativo y a la alumna o alumno un informe final a la conclusión de las prácticas. En dicho informe, además del número de horas realizadas por el alumno o alumna, se valorarán diferentes aspectos de las competencias genéricas y específicas previstas en el proyecto formativo.

Cuando así se establezca en el proyecto formativo, una vez transcurrida la mitad del periodo de duración de las prácticas, podrá elaborarse un informe intermedio de seguimiento a petición de la universidad.

14- Beste txosten edo memoria batzuk.

Egin beharreko praktiken programarekin lotutako beste edozein txosten edo memoriak parte-hartzaileen datuak jaso beharko ditu, sexuaren arabera bereizita eta beste aldagai batzuekin gurutzatuta (adina, jatorria, arraza, etab.); horrez gain, emakumeen eta gizonen egoera bereizia aztertzea ahalbidetzen duten genero-adierazleak identifikatu beharko ditu.

15-Ikasteko poltsa edo laguntza.

Bizkaiko Foru Aldundiak praktika akademikoaren ordu bakoitza 3,50 eurokoa izango duten ikasketetarako poltsa edo laguntza bat ordainduko dizkio ikasleari; horrek, praktiketan dagoen pertsonari praktikak gauzatzearen ondoriozko gastuak ordaindu diezazkion. Laguntza hori 4 eurokoa izango da praktika akademikoetako ordu bakoitzeko, % 33ko desgaitasuna edo handiagoa duten ikasleen kasuan.

Laguntza horrek ez dakar berekin inolako ordainsari edo soldatarik. Hura ordaintzean, Bizkaiko Foru Aldundiak zerga-betebeharrak beteko ditu eta berriz, Gizarte Segurantzaren arloan aplikagarriak diren betebeharrak.

16-Datu babeserako araudi aplikagarria.

«Unibertsitate-prestakuntzako programarako»

1.Datu pertsonalak babesteko araubide aplikagarria da Europako Parlamentu eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalak tratatzeari eta datu horien zirkulazio askeari dagokionez, pertsona fisikoak babesten dituena, (aurrerantzean, DPEO) eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, datu pertsonalak babestu eta eskubide digitalak bermatzen dituena (aurrerantzean, DPBEDBLO).

2.Datu pertsonalen, identifikazioaren eta alderdi

14-Otros informes o memorias.

Cualquier otro informe o memoria relacionado con el programa de prácticas que deba realizarse, deberá acoger los datos de participantes desagregados por sexo cruzados con otras variables (edad, procedencia, raza, etc.) e identificando los indicadores de género que permitan analizar la situación diferenciada de mujeres y hombres.

15-Bolsa o ayuda al estudio.

La Diputación Foral de Bizkaia abonará al alumnado una bolsa o ayuda al estudio cuyos importes serán de 3,50 € por hora de prácticas académicas para que esta compense a la persona en prácticas los gastos ocasionados por la realización de las mismas. Esta ayuda será de 4 € por hora de práctica académica en el caso del alumnado con una discapacidad igual o superior al 33%.

Esta ayuda no supone remuneración o salario alguno y en su abono la Diputación Foral de Bizkaia cumplirá con las obligaciones fiscales y con las obligaciones en materia de Seguridad Social que resulten aplicables.

16-Normativa en protección de datos aplicable.

Para el "Programa de formación universitaria"

1.El régimen de protección de datos personales aplicable es el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos (en adelante, "RGPD"), y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de datos personales y garantía de los derechos digitales (en adelante, "LOPDGDD").

2.Descripción general del tratamiento de datos

sinatzaileen rolen deskribapen orokorra:

Bi alderdiek honako egiteko eta ardura hauek hartzen dituzte hitzarmen honen bidez, eta konpromisoa hartzen dute horretarako DBAOn eta DPBEDBLOn ezartzen diren xedapenak betetzeko.

a.[UNIBERTSITATE SINATZAILEA]: Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programaren esparruan unibertsitateetako ikasleen praktikak arautzeko tratatu behar diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango da.

b.Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia: Hitzarmen hau idazteko eta Bizkaiko Foru Aldundian unibertsitate-ikasleen praktika akademikoen programa kudeatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango da (bai eta datu horien nahitaezko zaintzarena ere).

Hitzarmen honek ez du sortzen alderdien artean DBAOren 26. artikuluan aurreikusitako inolako erantzunkidetasun-harremanik, izan ere, alderdiek ez dituzte elkarrekin ezartzen hitzarmen bidez aurreikusten diren tratamenduen helburuak eta baliabideak.

Hitzarmen honek, era berean, ez du sortzen alderdien artean tratamenduaren arduradunen harremanik DBAOren 28. artikuluaren arabera, alderdiek ez baitituzte datu pertsonalak tratatzen bestearen kontura.

3.Alderdien konpromisoak datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeko:

personales, identificación y roles de las partes firmantes:

Ambas partes adquieren los siguientes roles y responsabilidades en virtud del presente Convenio y se comprometen para tal fin a cumplir con las estipulaciones establecidas en el RGPD y en la LOPDGDD que le sean de aplicación.

a.La [UNIVERSIDAD FIRMANTE]: Tendrá la consideración de Responsable de Tratamiento de los datos personales que sea necesario tratar para regular las prácticas del alumnado de las universidades en el marco del Programa de Prácticas Académicas del Alumnado Universitario en la Diputación Foral de Bizkaia.

b.La Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de La Diputación Foral de Bizkaia: Tendrá la consideración de Responsable de Tratamiento para tratar los datos personales del alumnado de las universidades necesarios para la redacción del presente Convenio así como para la subsiguiente gestión del Programa de Prácticas Académicas del Alumnado Universitario en la Diputación Foral de Bizkaia incluida la obligada custodia de los mismos.

El presente Convenio no articula entre las partes ninguna relación de corresponsabilidad de las contempladas en el artículo 26 del RGPD puesto que las partes no determinan conjuntamente los objetivos y los medios de los tratamientos que por medio del convenio se prevén.

El presente Convenio, tampoco articula entre las partes una relación de responsables y encargados del tratamiento conforme al artículo 28 del RGPD puesto que ninguna de las partes trata datos personales por cuenta de la otra.

3.Compromisos de las partes para el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos personales:

a)[UNIBERTSITATE SINATZAILEARI] dagokio.

a.Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari Bizkaiko Foru Aldundiko unibertsitate-ikasleen praktika akademikoen programaren esparruan aukeraturiko ikasleen beharrezko datu pertsonalen berri ematea, horren harira ezartzen diren legezko betebeharrak betetze aldera.

b)Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio, tratamenduaren arduraduna den heinean:

a.«Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa» kudeatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzea.

b.Gizarte Segurantzaren arloan aplikagarriak diren betebeharrak betetzea; besteak beste, Gizarte Segurantzari eta/edo dagokionari ikasleen datuen berri ematea, dagozkion legezko betebeharrak betetze aldera.

c.Hitzarmen honetara Datu pertsonalen tratamendua izeneko eranskin-dokumentu bat txertatzea, tratamenduaren arduraduna den heinean babestu beharreko datu pertsonalak zehazten dituzten ad hoc instrukzioekin, tratamendua bere xedearen, jakinarazteko betebeharraren eta ezarri beharreko bestelako neurrien arabera gauzatze aldera.

c)Tratamenduaren arduradun bakoitzari dagokio, bere jarduketa-esparruan:

a.Zehazten diren datu pertsonalen tratamendurako jarduerak baimentzea.

b.Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela

a)Corresponde a la [UNIVERSIDAD FIRMANTE].

a.Comunicar a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia los datos personales necesarios del alumnado escogido en el marco del Programa de Prácticas Académicas del Alumnado Universitario en la Diputación Foral de Bizkaia para dar cumplimientos a las obligaciones legales que en su virtud se deriven.

b)Corresponde a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia en su respectivo ámbito como Responsable de Tratamiento:

a.Tratar los datos personales necesarios para la gestión del "Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia".

b.Cumplir con las obligaciones que en materia de Seguridad Social le resulten aplicables, a destacar entre ellas realizar la comunicación de los datos del alumnado a la Seguridad Social y/o a quién se refiera para dar cumplimiento a las obligaciones legales que le incumben.

c.Incorporar al presente convenio un documento anexo denominado "Tratamiento de datos personales" con las instrucciones ad hoc que especifican y detallan los datos personales a proteger en virtud de su consideración de Responsable del Tratamiento, para realizar el tratamiento de conformidad con su finalidad, su deber de informar y demás medidas a implementar.

c)Corresponde a cada Responsable de Tratamiento en su respectivo ámbito de actuación:

a.Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales que determine.

b.Velar de forma previa, controlar durante el

aurretiaz zaindu, tratamenduak dirauen artean kontrolatu eta tratamenduaren ostean ikuskatzea.

tratamiento y supervisar a posteriori el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.

c.Araudiari jarraikiz, datuak tratatzeko egin beharreko eragiketetan datu pertsonalak babesteko ikuskapenak, ikuskaritzak eta eragin-ebaluazioak egitea.

c.Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo a la normativa.

d.Kasu bakoitzean dagozkion aldez aurretik kontsultak egitea.

d.Realizar las consultas previas que en su caso, correspondan.

e.Datu pertsonalak tratatzea DBAOren 32. artikuluak ezarritako segurtasun-irizpideen eta bertako edukiaren arabera, eta behar diren neurri tekniko eta segurtasun- zein antolaketa-neurri guztiak hartzea eskuratzeko modua duen datu pertsonal guztien konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko. Zehatzago esanda, neurri horiek guztiek bat etorri behar dute informazio-sistemen kategorizazio- eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin, Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 3/2010 Errege Dekretuak xedatzen dituenei jarraikiz.

e.Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso. En particular, se correspondería con la categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.

f.Hitzarmena gauzatzerakoan, eskuratutako datu pertsonalen inguruko konfidentzialtasuna zeharo ziurtatzea, bai eta tratamenduaren ondorioz eskuratzen diren datuena, datuak eskuratzeko euskarria zeinahi delarik ere.

f.Mantener la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales a los que tenga acceso para la ejecución del convenio así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.

g.Betebehar hori lotzen zaio tratamenduaren arduradunaren kargura tratamenduaren edozein alditan parte hartzen duen pertsona orori eta, horrenbestez, pertsona fisiko edo juridiko horrek prestakuntza eskaini behar die bere menpeko pertsonei sekretua gorde beharreko betebeharrari buruz. Halaber, jakinarazi behar die konfidentzialtasuna gorde behar dutela jarduera amaitutakoan edo jarduera horretatik banandutakoan ere.

g.Esta obligación se extiende a toda persona que pudiera intervenir en cualquier fase del tratamiento por cuenta de cada Responsable de Tratamiento siendo asimismo deber de éstos instruir a las personas que estén bajo su dependencia orgánica y/o funcional, acerca del deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber aún después de la terminación de la prestación de la actividad o de su desvinculación.

h.Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda kudeatzea eta pertsona horiek guztiek, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna

h.Llevar un listado de personas autorizadas para tratar los datos personales y garantizar que las mismas se comprometen, de forma expresa y por

gordetzeko eta segurtasun-neurri egokiak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Ildo horretan, segurtasun neurrien berri behar bezala jakinarazi behar zaie.

i.Tratamendurako baimendutako pertsonek datu pertsonalak babesteko behar duten prestakuntza bermatzea.

j.Datu pertsonalak hirugarrenei ez komunikatzea (lagatzea) edo zabaltzea, ezta datuak gordetzeko ere; legez baimendutako kasuetan izan ezik.

k.Behar denean, datu pertsonalak babeste aldera, tratamenduaren arduradun bakoitzak izendaturiko pertsona fisiko(ar)en identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea; hau da, datu pertsonalen tratamenduaren erregulazioa legeari, formari eta segurtasunari dagokienez betetzeko ardura du(t)en pertson(ar)en identitatea.

l.Hitzarmena amaitu ostean, bi alderdiek konpromisoa hartu dute honako hauek suntsitzeko (legez edo Batasunaren zuzenbideari jarraiki arauz kontserbatzea baimentzen ez baldin bada):

1.Hitzarmen honen arabera ikusgai egon diren datuak jasotzen dituzten datu pertsonalak, euskarriak edo dokumentuak, kopiarik gorde gabe, betiere, datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak eskuratuak izan ziren helbururako.

2.Tratamenduaren bi arduradunek, hala ere, datuak gorde ahal izango dituzte erantzukizunak sortu daitezkeen denboran zehar. Azken kasuan, datuak blokeatuta gordeko dira eta behar besteko gutxieneko denboraz. Gero, epea amaitu bezain pronto, datuak modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

m.DBAOren 33. artikuluak xedatutakoari jarraikiz, bere erantzukizun-esparruan eta beharrezkoa bada, bere ardurapeko datu pertsonalek pairatutako zeinahi

escrito, a respetar la confidencialidad, y a cumplir con las medidas de seguridad correspondientes, de las que les debe informar convenientemente.

i.Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas a su tratamiento.

j.No comunicar (ceder) ni difundir los datos personales a terceras personas, ni siquiera para su conservación salvo en supuestos legalmente habilitados.

k.En su caso, comunicar la identidad y datos de contacto de la(s) persona(s) física(s) designada(s) por cada Responsable de Tratamiento a efectos de protección de los datos personales, esto es, la identidad de las persona(s) responsable(s) del cumplimiento de la regulación del tratamiento de datos personales, en las vertientes legales/formales y en las de seguridad.

l.Una vez finalizado el convenio ambas partes se comprometen salvo que se permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario su conservación, a destruir:

1.Los datos personales, los soportes y los documentos en que cualquiera de estos datos consten, sin conservar copia alguna, a los que se haya tenido acceso en virtud del presente convenio siempre que éstos hayan dejado de ser necesarios respecto a los fines que fueron recabados.

2.Ambos Responsables de Tratamiento podrán, no obstante, conservar los datos durante el tiempo que puedan derivarse responsabilidades de su relación con el otro Responsable de Tratamiento. En este último caso, los datos personales se conservarán bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndose de forma segura y definitiva al final de dicho plazo.

m.De conformidad con el artículo 33 RGPD, comunicarán en su respectivo ámbito de

segurtasun-urraketa eskuduna den kontrol-agintaritzari berehala jakinaraztea, gehienez ere 72 orduren buruan, eta horrekin batera, gorabehera edo tratamenduaren sisteman gertaturiko akatsak dokumentatzeko eta komunikatzeko eta, bide batez, datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jar dezakeen informazio esanguratsu oro kudeatzeko. Halaber, dena delako negozio juridikoa gauzatzean eskuratu diren datuak eta informazioa hirugarrenei komunikatu zaizkielako, konfidentzialtasuna urra dezakeen gertaera guztien berri eman behar dio. Horren inguruko informazio zehatza jakinaraziko dute arretaz; ildo horretan, konfidentzialtasuna zein interesdunek galdu zuen ere azalduko dute.

responsabilidad y en caso de ser necesario a la autoridad de control competente de forma inmediata y a más tardar en el plazo de 72 horas, cualquier violación de la seguridad de los datos personales bajo su responsabilidad de la que tengan conocimiento, juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información que hayan tenido o puedan tener que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceras personas de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del negocio jurídico correspondiente. Comunicarán con diligencia información detallada al respecto, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad.

n.Indarreko araudiak ezarritakoari jarraikiz jardungo da pertsona fisiko batek datu pertsonalen babesaren alorrean eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko eskubideak; tratamendua mugatzekoa; banakako erabaki automatizaturik ez izatekoa; eta aplikatu beharreko araudiak aintzatetsitako beste batzuk).

n.Atender conforme exige la normativa vigente cada supuesto en el que una persona física ejerza uno de los derechos en materia de protección de datos (acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas, u otros reconocidos por la normativa aplicable).

o.Segurtasun-neurrien, komunikazio-zereginen eta (lortutako nahiz saiatutako) segurtasun-arrakalen inguruko betebeharren alorrean, agintari eskumendunei edo interesdunei jakinaraztea eta beharrezkoak diren eragin-ebaluazioak egitea.

o.Cumplir con sus respectivas obligaciones en materia de medidas de seguridad, comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de seguridad a las autoridades competentes o las personas interesadas, y realizar, en su caso, las evaluaciones de impacto que sean pertinentes.

p.Eginiko tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa egingo da, idatziz, formatu elektronikoan eta DBEOren 30.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Gutxienez artikulu horretan aipaturiko inguruabarrak bilduko ditu erregistroak. Horrenbestez, erregistroan honako informazio hau bildu behar da:

p.Llevar, por escrito, incluso en formato electrónico, y de acuerdo con el artículo 30.2 del RGPD un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas que contenga, al menos, las circunstancias a que se refiere dicho artículo. En este sentido, este registro contendrá la siguiente información:

1.Hitzarmena egin den pertsona fisiko edo

1.Nombre y datos de contacto de la persona física o

juridikoaren izena eta harremanetarako datuak.

2.Egindako tratamenduaren kategoriak.

3.Segurtasun arloko neurri tekniko eta antolaketa neurrien azalpena, eta horien aplikazioa bidezkoa bada, alderdi hauen ingurukoak:

- Seudonimizazioa eta datu pertsonalen zifratua.

- Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.

- Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna.

- Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoen eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesu ohikoa.

q.Datu pertsonalen babesaren inguruko araudia eta ardura aktiboaren betebeharra betetzen direlako ebidentziak izatea.

r.Informaziorako eskubidea: tratamenduaren bi arduradunek, datuak jasotzeko unean, datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dute.

s.Honako klausula honek eta bertan ezarrita dauden betebeharrek zein Datu pertsonalen tratamendua deituriko eranskin-dokumentuak, datu pertsonalen tratamendua arautzen duen eta hitzarmen honen inguruan artikulatzen den egintza juridikoa osatzen dute. Hemen jasotzen diren betebeharrak eta prestazioak ezin dira ordaindu hitzarmen honetan ezarritakoa ez beste modu batean, ez eta hitzarmen honetan ezarritakoaren osagarri moduan ere, eta hitzarmen honen xede den prestazioaren iraupen bera izango dute eta, behar denean, hitzarmenaren iraupen bereko aldietarako luzatuko dira. Alabaina, hitzarmena bukatutakoan, indarrean jarraituko du

jurídica con la que se realice el convenio.

2.Categorías de tratamientos efectuados.

3.Una descripción de las medidas técnicas y organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:

- Seudonimización y el cifrado de datos personales.

- La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.

- La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.

- El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

q.Disponer de evidencias que demuestren su cumplimiento de la normativa de protección de datos personales y del deber de responsabilidad activa.

r.Derecho de información: ambos Responsables de Tratamiento en el momento de la recogida de los datos, deben facilitar la información relativa a los tratamientos de datos que se van a realizar.

s.La presente cláusula y las obligaciones en ella establecidas, así como el documento anexo denominado “Tratamiento de datos personales” constituyen el acto jurídico que regula el tratamiento de datos personales que se articula en torno al presente Convenio. Las obligaciones y prestaciones que aquí se contienen no son retribuibles de forma distinta u adicional a lo previsto en de este convenio y tendrán la misma duración que la prestación de objeto de este convenio prorrogándose en su caso por períodos iguales a éste. No obstante, a la finalización del convenio el deber de secreto continuará vigente, sin límite de tiempo, para todas las personas

informazioa isilpean gordetzeko betebeharrak, denbora-mugarik gabe, prestazioa egikaritzen parte hartzen duten pertsona guztientzat.

involucradas en la ejecución de la prestación.

t.Hitzarmena gauzatu ostean eta berau gauzatzean Datu pertsonalen tratamendua izeneko eranskinean zehaztutakoa aldatu edo egokitu behar baldin badira, Bizkaiko Foru Aldundiak aldatu edo egokitu nahi dituen alderdiak adieraziko ditu. [Unibertsitate sinatzailea] eskatutakoarekin ados egonez gero, Datu pertsonalen tratamendua izeneko eranskin berria emango du, tratamenduaren nondik norakoak zehazki jasota.

t.Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el documento anexo denominado "Tratamiento de datos personales", la Diputación Foral De Bizkaia señalará los cambios que solicita modificar u adaptar. En caso de que la [Universidad Firmante] esté de acuerdo con lo solicitado, se emitiría un nuevo documento denominado "Tratamiento de datos personales" actualizado, de modo que el mismo siempre recoja fielmente el detalle del tratamiento."

*BFAtik bekadunak jakinarazteko betebeharra betetzeko dokumentua.*

Datu pertsonalen tratamendua

Bizkaiko Foru Aldundiaren esparru organiko edo funtzionaleko langileak, hitzarmenaren xede-zerbitzuak emateko, datu pertsonalak tratatu ditzake. Datu pertsonalak atxikitako langile honek bakarrik tratatu ahalko ditu eta hitzarturiko irismena gauzatzeko xede bakarrarekin.

*Documento para dar cumplimiento del deber de informar desde DFB a las personas becarias.*

"Tratamiento de datos personales"

El personal adscrito o perteneciente al ámbito orgánico o funcional de la Diputación Foral de Bizkaia, para proporcionar los servicios objeto del convenio, puede tratar datos personales. Los datos personales se tratarán únicamente por este personal adscrito y con el único fin de efectuar el alcance convenido.

*BFA-REN HITZARMENETAKO DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA*

*2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, DATUEN BABESARI BURUZKOA, ETA 3/2018 LEGE ORGANIKOA, DATU PERTSONALEN BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOA*

Tratamenduaren arduraduna eta kontaktua

Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia:

Kale nagusia 25 – 48009 Bilbo

Datuen babeserako delegatua

Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Ataleko Burutza

Kale nagusia 25 – 48009 Bilbo

Interesdunaren eskubideak

Interesdunak tratamenduaren arduradunarengana jo dezake beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko eta ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea erabiltzeko. Horretarako, idazkia bidali behar du Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atalera:

**BFAren egoitza elektronikoa:** https://www.ebizkaia.eus

- Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Nagusia (Laguntza, Erregistro eta Herritarren Arretarako Bulegoa: Diputazio kalea 7 – 48008 Bilbo)
- Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarrentzako Arretarako Eskualde Bulegoak.
- Bizkaiko Foru Aldundiko sailen erregistro orokorrak.
- 39/2015 Legean aurreikusitako lekuetan

Interesdunak era berean eskubidea du dagokion Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamazioak egiteko.

Tratamenduaren helburua

Hitzarmenaren ondoriozko datuen tratamendua:

Ikasleen datu pertsonalak erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta [Unibertsitate sinatzailearen] arteko hezkuntza-lankidetzako hitzarmena idazteko, *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa* kudeatzeko zein zaintzeko.

Datu pertsonalen tratamendu hau egiteko, honako hauek daude:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia,

hitzarmeneko alderdi gisa eta tratamenduaren arduradun gisa.

- [UNIBERTSITATE SINATZAILEA], hitzarmeneko alderdi gisa eta tratamenduaren arduradun gisa.

## Datuen tratamendurako jarduerak

Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu:

| | |
|---|---|
| Datuak atzematea | x |
| Datuak grabatzea | x |
| Datuak egituratzea | x |
| Interesdunekin harremanetan jartzea | x |
| Datuak biltegiratzea | x |
| Datuak kontsultatzea | x |
| Datuak lagatzea / zabaltzea | x |
| Datuak suntsitzea | x |
| Tratamenduaren arduradunaren informazio-sistemetan datuak kontserbatzea | x |
| Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuak berreskuratzea | x |
| Beste batzuk: eta hitzarmena betetzearen ondoriozko prestazioetan zehar sorturiko horiek. | x |

## Tratamenduaren zilegitasuna

1. DPBEDBLOaren 8.1 eta 8.2 artikuluak.
2. Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legea.
3. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta [Unibertsitate sinatzailearen] arteko hezkuntza-lankidetzako hitzarmena, *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa* barruan.

## Datu pertsonalen kategoriak

Adierazi zein datu pertsonal mota tratatuko diren hitzarmena gauzatzerakoan:

| IDENTIFIKAZIO-DATUAK: | |
|---|---|
| NAN/IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala | x |
| Izen-abizenak | x |
| Posta-helbidea | x |
| Telefonoa | x |
| Sinadura | x |
| Jaioteguna | x |
| Jaioterria | x |
| Helbide elektronikoa | x |
| Sexua | x |
| Gizarte Segurantzako zk. | x |
| BESTE DATU MOTA BATZUK | |
| Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste) | x |
| Ekonomikoak, finantzarioak edo | x |
| Arau-hauste penalei buruzko datuak | x |

Interesdunen kategoriaren deskribapena

## Datuen jatorria

Trataturiko datu pertsonalak hemendik datoz:

| | |
|---|---|
| Interesdunak edo beren ordezkariak | X |
| *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa* [Unibertsitate sinatzailea] | X |

## Datuen hartzaileak

Ikasleen datuen berri emango zaie (alta izapidetzeko) Gizarte Segurantzari eta *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa* aipatzen denari, ezarri behar diren legezko betebeharrak betetzeko.

## Datuak kontserbatzeko epea

Hitzarmenaren egikaritzea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar kontserbatuko da, bere berme-epean zehar hedatu eta legezko edo kontratuzko betebeharrak bete arte.

## Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea

Tratamendua amaitu ostean, honako hauek suntsitu behar dira (legez edo erkidegoko zuzenbideari jarraikiz arauz kontserbatzea baimentzen ez baldin bada):

1. Hitzarmen honen arabera ikusgai egon diren datuak jasotzen dituzten datu pertsonalak, euskarriak edo dokumentuak, kopiarik gorde gabe, betiere, datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak eskuratuak izan ziren helbururako.
2. Hala ere, datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sortu daitezkeen denboran zehar. Azken kasuan, datuak blokeatuta gordeko dira eta behar besteko gutxieneko denboraz. Gero, epea amaitu bezain pronto, datuak modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

## Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra

Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren arabera.

*INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS EN CONVENIOS DE DFB*

*REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018*

**Responsable del tratamiento y contacto**

Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia
Gran Vía, 25 – 48009 Bilbao

**Persona Delegada de Protección de Datos**

Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos
Gran Vía, 25 – 48009 Bilbao

**Derechos de la persona interesada**

La persona interesada puede ejercer ante la persona Responsable de Tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en:

Sede electrónica de la DFB: https://www.ebizkaia.eus

- Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza: C/ Diputación, 7- 48008 Bilbao)
- Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia
- Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia
- Lugares previstos en la Ley 39/2015

La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente, la Agencia Vasca de Protección de Datos.

**Finalidad del tratamiento**

El tratamiento de datos que se deriva del convenio consiste en:

La utilización de los datos personales del alumnado para la redacción del convenio de cooperación educativa entre la Diputación Foral de Bizkaia y la [*Universidad Firmante*], para la gestión del propio "*Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia*" así como su posterior custodia.

Para la realización de este tratamiento de datos personales figura:

- La Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia en calidad de parte del Convenio y Responsable de Tratamiento.
- La [UNIVERSIDAD FIRMANTE] en calidad de parte del Convenio y Responsable de Tratamiento.

**Actividades del tratamiento de datos**

El tratamiento de los datos personales comprenderá:

| | |
|---|---|
| Captura de datos | x |
| Grabación de datos | x |
| Estructuración de datos | x |
| Puesta en contacto con personas interesadas | x |
| Almacenamiento de datos | x |
| Consulta de datos | x |
| Cesión / difusión de datos | x |
| Destrucción de datos | x |
| Conservación de datos en sistemas de información del encargado de tratamiento | x |
| Copias de seguridad de los datos, recuperación de datos | x |
| Otros: y todos aquellos generados durante la prestaciones derivadas del cumplimento del Convenio | x |

## Legitimación del tratamiento

4. Art 8.1 y 8.2 de la LOPDGDD.
5. Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público y Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
6. Convenio de Cooperación Educativa entre la Diputación Foral De Bizkaia y la [Universidad Firmante] dentro del "*Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia*".

## Categorías de datos personales

Indicar, qué tipo de datos personales se van a tratar en la ejecución del convenio:

| DATOS IDENTIFICATIVOS: | |
|---|---|
| D.N.I. /N.I.F. / Documento de | x |
| Nombre y Apellidos | x |
| Dirección postal | x |
| Teléfono | x |
| Firma | x |
| Fecha Nacimiento | x |
| Lugar de nacimiento | x |
| Correo electrónico | x |

| | |
|---|---|
| Sexo | x |
| Nº de la Seguridad Social | x |
| OTRO TIPO DE DATOS | |
| Datos de formación (Títulos, Académicos, diplomas, entre otros) | x |
| Económicos, Financieros y de Seguros | x |
| Datos sobre infracciones penales | x |

Descripción de la categoría de personas interesadas

## Origen de los datos

Los datos personales tratados proceden de:

| | |
|---|---|
b. Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia: Hitzarmen hau idazteko eta Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa kudeatzeko behar diren datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna izango da (bai eta datu horien nahitaezko zaintzarena ere).

Hitzarmen honek ez du sortzen alderdien artean DBAOren 26. artikuluan aurreikusitako inolako erantzunkidetasun-harremanik, izan ere, alderdiek ez dituzte elkarrekin ezartzen hitzarmen bidez aurreikusten diren tratamenduen helburuak eta baliabideak.

Hitzarmen honek, era berean, ez du sortzen alderdien artean tratamenduaren arduradunen harremanik DBAOren 28. artikuluaren arabera, alderdiek ez baitituzte datu pertsonalak tratatzen bestearen kontura.

3)Alderdien konpromisoak datu pertsonalen babesaren arloan indarrean dagoen araudia betetzeko:

a)[UNIBERTSITATE SINATZAILEARI] dagokio.

Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programaren esparruan aukeraturiko ikasleen beharrezko datu pertsonalen berri ematea, horren harira ezartzen diren legezko betebeharrak betetze aldera.

b)Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta

2)Descripción general del tratamiento de datos personales, identificación y roles de las partes firmantes:

Ambas partes adquieren los siguientes roles y responsabilidades en virtud del presente Convenio y se comprometen para tal fin a cumplir con las estipulaciones establecidas en el RGPD y en la LOPDGDD que le sean de aplicación.

a.La [UNIVERSIDAD FIRMANTE]: Tendrá la consideración de Responsable de Tratamiento de los datos personales que sea necesario tratar para regular las prácticas del alumnado de las universidades en el marco del Programa de Prácticas Académicas del Alumnado Universitario en la Diputación Foral de Bizkaia.

b. La Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de La Diputación Foral de Bizkaia: Tendrá la consideración de Responsable de Tratamiento para tratar los datos personales del alumnado de las universidades necesarios para la redacción del presente Convenio así como para la subsiguiente gestión del Programa de Prácticas Académicas del Alumnado Universitario en la Diputación Foral de Bizkaia incluida la obligada custodia de los mismos.

El presente Convenio no articula entre las partes ninguna relación de corresponsabilidad de las contempladas en el artículo 26 del RGPD puesto que las partes no determinan conjuntamente los objetivos y los medios de los tratamientos que por medio del convenio se prevén.

El presente Convenio, tampoco articula entre las partes una relación de responsables y encargados del tratamiento conforme al artículo 28 del RGPD puesto que ninguna de las partes trata datos personales por cuenta de la otra.

3)Compromisos de las partes para el cumplimiento de la normativa vigente en materia de protección de datos personales:

a)Corresponde a la [UNIVERSIDAD FIRMANTE].

Comunicar a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia los datos personales necesarios del alumnado escogido en el marco del Programa de Prácticas Académicas del Alumnado Universitario en la Diputación Foral de Bizkaia para dar cumplimientos a las obligaciones legales que en su virtud se deriven.

Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari dagokio, tratamenduaren arduraduna den heinean:

a. «Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa» kudeatzeko beharrezkoak diren datu pertsonalak tratatzea.

b. Gizarte Segurantzaren arloan aplikagarriak diren betebeharrak betetzea; besteak beste, Gizarte Segurantzari eta/edo dagokionari ikasleen datuen berri ematea, dagozkion legezko betebeharrak betetze aldera.

c. Hitzarmen honetara Datu pertsonalen tratamendua izeneko eranskin-dokumentu bat txertatzea, tratamenduaren arduraduna den heinean babestu beharreko datu pertsonalak zehazten dituzten ad hoc instrukzioekin, tratamendua bere xedearen, jakinarazteko betebeharraren eta ezarri beharreko bestelako neurrien arabera gauzatze aldera.

b)Corresponde a la Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia en su respectivo ámbito como Responsable de Tratamiento:

a. Tratar los datos personales necesarios para la gestión del "Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia".

b. Cumplir con las obligaciones que en materia de Seguridad Social le resulten aplicables, a destacar entre ellas realizar la comunicación de los datos del alumnado a la Seguridad Social y/o a quién se refiera para dar cumplimiento a las obligaciones legales que le incumben.

c. Incorporar al presente convenio un documento anexo denominado "Tratamiento de datos personales" con las instrucciones ad hoc que especifican y detallan los datos personales a proteger en virtud de su consideración de Responsable del Tratamiento, para realizar el tratamiento de conformidad con su finalidad, su deber de informar y demás medidas a implementar.

c) Tratamenduaren arduradun bakoitzari dagokio, bere jarduketa-esparruan:

a.Zehazten diren datu pertsonalen tratamendurako jarduerak baimentzea.

b.Datuen babesari buruzko araudia betetzen dela aurretiaz zaindu, tratamenduak dirauen artean kontrolatu eta tratamenduaren ostean ikuskatzea.

c.Araudiari jarraikiz, datuak tratatzeko egin beharreko eragiketetan datu pertsonalak babesteko ikuskapenak, ikuskaritzak eta eragin-ebaluazioak egitea.

d.Kasu bakoitzean dagozkion aldez aurretik kontsultak egitea.

e.Datu pertsonalak tratatzea DBAOren 32. artikuluak ezarritako segurtasun-irizpideen eta bertako edukiaren arabera, eta behar diren neurri tekniko eta segurtasun- zein antolaketa-neurri guztiak hartzea eskuratzeko modua duen datu pertsonal guztien konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko. Zehatzago esanda, neurri horiek guztiek bat etorri behar dute informazio-sistemen kategorizazio- eta segurtasun-neurrien aplikazioarekin, Administrazio Elektronikoaren esparruko Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 3/2010 Errege Dekretuak xedatzen dituenei jarraikiz.

c) Corresponde a cada Responsable de Tratamiento en su respectivo ámbito de actuación:

a.Autorizar las actividades de tratamiento de datos personales que determine.

b.Velar de forma previa, controlar durante el tratamiento y supervisar a posteriori el cumplimiento de la normativa en materia de protección de datos.

c.Realizar las inspecciones, auditorías y evaluaciones de impacto en protección de datos personales de las operaciones de tratamiento que correspondan de acuerdo a la normativa.

d.Realizar las consultas previas que en su caso, correspondan.

e.Tratar los datos personales de conformidad con los criterios de seguridad y el contenido previsto en el artículo 32 del RGPD, así como observar y adoptar las medidas técnicas y organizativas de seguridad necesarias o convenientes para asegurar la confidencialidad, secreto e integridad de los datos personales a los que tenga acceso. En particular, se correspondería con la categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.

f.Hitzarmena gauzatzerakoan, eskuratutako datu pertsonalen inguruko konfidentzialtasuna zeharo ziurtatzea, bai eta tratamenduaren ondorioz eskuratzen diren datuena, datuak eskuratzeko euskarria zeinahi delarik ere.

f.Mantener la más absoluta confidencialidad sobre los datos personales a los que tenga acceso para la ejecución del convenio así como sobre los que resulten de su tratamiento, cualquiera que sea el soporte en el que se hubieren obtenido.

g.Betebehar hori lotzen zaio tratamenduaren arduradunaren kargura tratamenduaren edozein alditan parte hartzen duen pertsona orori eta, horrenbestez, pertsona fisiko edo juridiko horrek prestakuntza eskaini behar die bere menpeko pertsonei sekretua gorde beharreko betebeharrari buruz. Halaber, jakinarazi behar die konfidentzialtasuna gorde behar dutela jarduera amaitutakoan edo jarduera horretatik banandutakoan ere.

g.Esta obligación se extiende a toda persona que pudiera intervenir en cualquier fase del tratamiento por cuenta de cada Responsable de Tratamiento siendo asimismo deber de éstos instruir a las personas que estén bajo su dependencia orgánica y/o funcional, acerca del deber de secreto, y del mantenimiento de dicho deber aún después de la terminación de la prestación de la actividad o de su desvinculación.

h.Datu pertsonalak tratatzeko baimena duten pertsonen zerrenda kudeatzea eta pertsona horiek guztiek, berariaz eta idatziz, konfidentzialtasuna gordetzeko eta segurtasun-neurri egokiak betetzeko konpromisoa hartzen dutela bermatzea. Ildo horretan, segurtasun neurrien berri behar bezala jakinarazi behar zaie.

h.Llevar un listado de personas autorizadas para tratar los datos personales y garantizar que las mismas se comprometen, de forma expresa y por escrito, a respetar la confidencialidad, y a cumplir con las medidas de seguridad correspondientes, de las que les debe informar convenientemente.

i.Tratamendurako baimendutako pertsonek datu pertsonalak babesteko behar duten prestakuntza bermatzea.

i.Garantizar la formación necesaria en materia de protección de datos personales de las personas autorizadas a su tratamiento.

j.Datu pertsonalak hirugarrenei ez komunikatzea (lagatzea) edo zabaltzea, ezta datuak gordetzeko ere; legez baimendutako kasuetan izan ezik.

j.No comunicar (ceder) ni difundir los datos personales a terceras personas, ni siquiera para su conservación salvo en supuestos legalmente habilitados.

k.Behar denean, datu pertsonalak babeste aldera, tratamenduaren arduradun bakoitzak izendaturiko pertsona fisiko(ar)en identitatea eta harremanetarako datuak jakinaraztea; hau da, datu pertsonalen tratamenduaren erregulazioa legeari, formari eta segurtasunari dagokienez betetzeko ardura du(t)en pertson(ar)en identitatea.

k.En su caso, comunicar la identidad y datos de contacto de la(s) persona(s) física(s) designada(s) por cada Responsable de Tratamiento a efectos de protección de los datos personales, esto es, la identidad de las persona(s) responsable(s) del cumplimiento de la regulación del tratamiento de datos personales, en las vertientes legales/formales y en las de seguridad.

l.Hitzarmena amaitu ostean, bi alderdiek konpromisoa hartu dute honako hauek suntsitzeko (legez edo Batasunaren zuzenbideari jarraiki arauz kontserbatzea baimentzen ez baldin bada):

l.Una vez finalizado el convenio ambas partes se comprometen salvo que se permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario su conservación, a destruir:

1.Hitzarmen honen arabera ikusgai egon diren datuak jasotzen dituzten datu pertsonalak, euskarriak edo dokumentuak, kopiarik gorde gabe, betiere, datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak eskuratuak izan ziren helbururako.

1.Los datos personales, los soportes y los documentos en que cualquiera de estos datos consten, sin conservar copia alguna, a los que se haya tenido acceso en virtud del presente convenio siempre que éstos hayan dejado de ser necesarios respecto a los fines que fueron recabados.

2.Tratamenduaren bi arduradunek, hala ere, datuak gorde ahal izango dituzte erantzukizunak sortu daitezkeen denboran zehar. Azken kasuan, datuak blokeatuta gordeko dira eta behar besteko

2.Ambos Responsables de Tratamiento podrán, no obstante, conservar los datos durante el tiempo que

gutxieneko denboraz. Gero, epea amaitu bezain pronto, datuak modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

m.DBAOren 33. artikuluak xedatutakoari jarraikiz, bere erantzukizun-esparruan eta beharrezkoa bada, bere ardurapeko datu pertsonalek pairatutako zeinahi segurtasun-urraketa eskuduna den kontrol-agintaritzari berehala jakinaraztea, gehienez ere 72 orduren buruan, eta horrekin batera, gorabehera edo tratamenduaren sisteman gertaturiko akatsak dokumentatzeko eta komunikatzeko eta, bide batez, datu pertsonalen segurtasuna, osotasuna edo eskuragarritasuna arriskuan jar dezakeen informazio esanguratsu oro kudeatzeko. Halaber, dena delako negozio juridikoa gauzatzean eskuratu diren datuak eta informazioa hirugarrenei komunikatu zaizkielako, konfidentzialtasuna urra dezakeen gertaera guztien berri eman behar dio. Horren inguruko informazio zehatza jakinaraziko dute arretaz; ildo horretan, konfidentzialtasuna zein interesdunek galdu zuen ere azalduko dute.

n.Indarreko araudiak ezarritakoari jarraikiz jardungo da pertsona fisiko batek datu pertsonalen babesaren alorrean eskubideren bat baliatzen duenean (datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta aurkaratzeko eskubideak; tratamendua mugatzekoa; banakako erabaki automatizaturik ez izatekoa; eta aplikatu beharreko araudiak aintzatetsitako beste batzuk).

o.Segurtasun-neurrien, komunikazio-zereginen eta (lortutako nahiz saiatutako) segurtasun-arrakalen inguruko betebeharren alorrean, agintari eskumendunei edo interesdunei jakinaraztea eta beharrezkoak diren eragin-ebaluazioak egitea.

p.Eginiko tratamendu-jardueren kategoria guztien erregistroa egingo da, idatziz, formatu elektronikoan eta DBEOren 30.2 artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz. Gutxienez artikulu horretan aipaturiko inguruabarrak bilduko ditu erregistroak. Horrenbestez, erregistroan honako informazio hau bildu behar da:

1.Hitzarmena egin den pertsona fisiko edo juridikoaren izena eta harremanetarako datuak.

2.Egindako tratamenduaren kategoriak.

3.Segurtasun arloko neurri tekniko eta antolaketa neurrien azalpena, eta horien aplikazioa bidezkoa

puedan derivarse responsabilidades de su relación con el otro Responsable de Tratamiento. En este último caso, los datos personales se conservarán bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndose de forma segura y definitiva al final de dicho plazo.

m.De conformidad con el artículo 33 RGPD, comunicarán en su respectivo ámbito de responsabilidad y en caso de ser necesario a la autoridad de control competente de forma inmediata y a más tardar en el plazo de 72 horas, cualquier violación de la seguridad de los datos personales bajo su responsabilidad de la que tengan conocimiento, juntamente con toda la información relevante para la documentación y comunicación de la incidencia o cualquier fallo en su sistema de tratamiento y gestión de la información que hayan tenido o puedan tener que ponga en peligro la seguridad de los datos personales, su integridad o su disponibilidad, así como cualquier posible vulneración de la confidencialidad como consecuencia de la puesta en conocimiento de terceras personas de los datos e informaciones obtenidos durante la ejecución del negocio jurídico correspondiente. Comunicarán con diligencia información detallada al respecto, incluso concretando qué personas interesadas sufrieron una pérdida de confidencialidad.

n.Atender conforme exige la normativa vigente cada supuesto en el que una persona física ejerza uno de los derechos en materia de protección de datos (acceso, rectificación, supresión y oposición, limitación del tratamiento y a no ser objeto de decisiones individualizadas automatizadas, u otros reconocidos por la normativa aplicable).

o.Cumplir con sus respectivas obligaciones en materia de medidas de seguridad, comunicación y/o notificación de brechas (logradas e intentadas) de seguridad a las autoridades competentes o las personas interesadas, y realizar, en su caso, las evaluaciones de impacto que sean pertinentes.

p.Llevar, por escrito, incluso en formato electrónico, y de acuerdo con el artículo 30.2 del RGPD un registro de todas las categorías de actividades de tratamiento efectuadas que contenga, al menos, las circunstancias a que se refiere dicho artículo. En este sentido, este registro contendrá la siguiente información:

1.Nombre y datos de contacto de la persona física o jurídica con la que se realice el convenio.

2.Categorías de tratamientos efectuados.

3.Una descripción de las medidas técnicas y

bada, alderdi hauen ingurukoak:

i.Seudonimizazioa eta datu pertsonalen zifratua.

ii. Tratamendu-sistemen eta -zerbitzuen konfidentzialtasun, osotasun, erabilgarritasun eta erresilientzia iraunkorra bermatzeko gaitasuna.

iii.Gorabehera fisiko edo teknikorik izanez gero, datu pertsonalak berriro erabilgarri eta irispidean azkar jartzeko gaitasuna.

iv.Tratamenduaren segurtasuna bermatzeko neurri tekniko eta antolakuntzakoen eraginkortasuna egiaztatzeko, ebaluatzeko eta baloratzeko prozesu ohikoa.

q.Datu pertsonalen babesaren inguruko araudia eta ardura aktiboaren betebeharra betetzen direlako ebidentziak izatea.

r.Informaziorako eskubidea: tratamenduaren bi arduradunek, datuak jasotzeko unean, datuen tratamenduei buruzko informazioa eman beharko dute.

s.Honako klausula honek eta bertan ezarrita dauden betebeharrek zein Datu pertsonalen tratamendua deituriko eranskin-dokumentuak, datu pertsonalen tratamendua arautzen duen eta hitzarmen honen inguruan artikulatzen den egintza juridikoa osatzen dute. Hemen jasotzen diren betebeharrak eta prestazioak ezin dira ordaindu hitzarmen honetan ezarritakoa ez beste modu batean, ez eta hitzarmen honetan ezarritakoaren osagarri moduan ere, eta hitzarmen honen xede den prestazioaren iraupen bera izango dute eta, behar denean, hitzarmenaren iraupen bereko aldietarako luzatuko dira. Alabaina, hitzarmena bukatutakoan, indarrean jarraituko du informazioa isilpean gordetzeko betebeharrak, denbora-mugarik gabe, prestazioa egikaritzen parte hartzen duten pertsona guztientzat.

t.Hitzarmena gauzatu ostean eta berau gauzatzean Datu pertsonalen tratamendua izeneko eranskinean zehaztutakoa aldatu edo egokitu behar baldin badira, Bizkaiko Foru Aldundiak aldatu edo egokitu nahi dituen alderdiak adieraziko ditu. [Unibertsitate sinatzailea] eskatutakoarekin ados egonez gero, Datu pertsonalen tratamendua izeneko eranskin berria emango du, tratamenduaren nondik norakoak zehazki jasota.

organizativas de seguridad, en caso de que proceda su aplicación, relativas a:

i.Seudonimización y el cifrado de datos personales.

ii.La capacidad de garantizar la confidencialidad, integridad, disponibilidad y resiliencia permanentes de los sistemas y servicios de tratamiento.

iii.La capacidad de restaurar la disponibilidad y el acceso a los datos personales de forma rápida, en caso de incidente físico o técnico.

iv.El proceso de verificación, evaluación y valoración regulares de la eficacia de las medidas técnicas y organizativas para garantizar la seguridad del tratamiento.

q.Disponer de evidencias que demuestren su cumplimiento de la normativa de protección de datos personales y del deber de responsabilidad activa.

r.Derecho de información: ambos Responsables de Tratamiento en el momento de la recogida de los datos, deben facilitar la información relativa a los tratamientos de datos que se van a realizar.

s.La presente cláusula y las obligaciones en ella establecidas, así como el documento anexo denominado “Tratamiento de datos personales” constituyen el acto jurídico que regula el tratamiento de datos personales que se articula en torno al presente Convenio. Las obligaciones y prestaciones que aquí se contienen no son retribuibles de forma distinta u adicional a lo previsto en de este convenio y tendrán la misma duración que la prestación de objeto de este convenio prorrogándose en su caso por períodos iguales a éste. No obstante, a la finalización del convenio el deber de secreto continuará vigente, sin límite de tiempo, para todas las personas involucradas en la ejecución de la prestación.

t.Si una vez formalizado el convenio y durante la ejecución del mismo resultara necesario modificar o adaptar lo estipulado en el documento anexo denominado “Tratamiento de datos personales”, la Diputación Foral De Bizkaia señalará los cambios que solicita modificar u adaptar. En caso de que la [Universidad Firmante] esté de acuerdo con lo solicitado, se emitiría un nuevo documento denominado “Tratamiento de datos personales” actualizado, de modo que el mismo siempre recoja fielmente el detalle del tratamiento.”

*BFAtik bekadunak jakinarazteko betebeharra betetzeko dokumentua.*

Datu pertsonalen tratamendua

Bizkaiko Foru Aldundiaren esparru organiko edo funtzionaleko langileak, hitzarmenaren xede-zerbitzuak emateko, datu pertsonalak tratatu ditzake. Datu pertsonalak atxikitako langile honek bakarrik tratatu ahalko ditu eta hitzarturiko irismena gauzatzeko xede bakarrarekin.

*Documento para dar cumplimiento del deber de informar desde DFB a las personas becarias.*

"Tratamiento de datos personales"

El personal adscrito o perteneciente al ámbito orgánico o funcional de la Diputación Foral de Bizkaia, para proporcionar los servicios objeto del convenio, puede tratar datos personales. Los datos personales se tratarán únicamente por este personal adscrito y con el único fin de efectuar el alcance convenido.

| *BFA-REN HITZARMENETAKO DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIOA*<br><br>*2016/679 (EB) ERREGELAMENDUA, DATUEN BABESARI BURUZKOA, ETA 3/2018 LEGE ORGANIKOA, DATU PERTSONALEN BABESTEKO ETA ESKUBIDE DIGITALAK BERMATZEKOA* |
|---|
| Tratamenduaren arduraduna eta kontaktua |
| Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia:<br><br>Kale nagusia 25 – 48009 Bilbo |
| Datuen babeserako delegatua |
| Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Ataleko Burutza<br><br>Kale nagusia 25 – 48009 Bilbo |
| Interesdunaren eskubideak |
| Interesdunak tratamenduaren arduradunarengana jo dezake beren datuak eskuratzeko, zuzentzeko, aurkaratzeko eta ezabatzeko eta tratamendua mugatzeko eskubideak eta banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubidea erabiltzeko. Horretarako, idazkia bidali behar du Aholkularitza Juridiko, Informazioaren Segurtasun eta Datuen Babeserako Atalera:<br><br>**BFAren egoitza elektronikoa:** https://www.ebizkaia.eus<br><br>• Bizkaiko Foru Aldundiaren Erregistro Nagusia (Laguntza, Erregistro eta Herritarren Arretarako Bulegoa: Diputazio kalea 7 – 48008 Bilbo)<br><br>• Bizkaiko Foru Aldundiaren Herritarrentzako Arretarako Eskualde Bulegoak.<br><br>• Bizkaiko Foru Aldundiko sailen erregistro orokorrak.<br><br>• 39/2015 Legean aurreikusitako lekuetan<br><br>Interesdunak era berean eskubidea du dagokion Kontrol Agintaritzan (Datuak Babesteko Euskal Bulegoan) erreklamazioak egiteko. |
| Tratamenduaren helburua |
| Hitzarmenaren ondoriozko datuen tratamendua:<br><br>Ikasleen datu pertsonalak erabiltzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta [Unibertsitate sinatzailearen] arteko hezkuntza-lankidetzako hitzarmena idazteko, *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru* |

*Aldundian egiteko programa* kudeatzeko zein zaintzeko.

Datu pertsonalen tratamendu hau egiteko, honako hauek daude:

- Bizkaiko Foru Aldundiko Araubide Juridikoaren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia, hitzarmeneko alderdi gisa eta tratamenduaren arduradun gisa.
- [UNIBERTSITATE SINATZAILEA], hitzarmeneko alderdi gisa eta tratamenduaren arduradun gisa.

## Datuen tratamendurako jarduerak

Datu pertsonalen tratamenduak honako hauek barne hartuko ditu:

| | |
|---|---|
| Datuak atzematea | x |
| Datuak grabatzea | x |
| Datuak egituratzea | x |
| Interesdunekin harremanetan jartzea | x |
| Datuak biltegiratzea | x |
| Datuak kontsultatzea | x |
| Datuak lagatzea / zabaltzea | x |
| Datuak suntsitzea | x |
| Tratamenduaren arduradunaren informazio-sistemetan datuak kontserbatzea | x |
| Datuen segurtasun-kopiak egitea, datuak berreskuratzea | x |
| Beste batzuk: eta hitzarmena betetzearen ondoriozko prestazioetan zehar sorturiko horiek. | x |

## Tratamenduaren zilegitasuna

7. DPBEDBLOaren 8.1 eta 8.2 artikuluak.

8. Langile Publikoaren Oinarrizko Estatutuari buruzko Legearen testu bategina onetsi duen urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua eta Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko

6/1989 Legea.

9. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta [Unibertsitate sinatzailearen] arteko hezkuntza-lankidetzako hitzarmena, *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa* barruan.

## Datu pertsonalen kategoriak

Adierazi zein datu pertsonal mota tratatuko diren hitzarmena gauzatzerakoan:

| IDENTIFIKAZIO-DATUAK: | |
|---|---|
| NAN/IFZ / Identifikazio-agiri Ofiziala | x |
| Izen-abizenak | x |
| Posta-helbidea | x |
| Telefonoa | x |
| Sinadura | x |
| Jaioteguna | x |
| Jaioterria | x |
| Helbide elektronikoa | x |
| Sexua | x |
| Gizarte Segurantzako zk. | x |
| BESTE DATU MOTA BATZUK | |
| Prestakuntza-datuak (titulu akademikoak, diplomak, besteak beste) | x |
| Ekonomikoak, finantzarioak edo | x |
| Arau-hauste penalei buruzko datuak | x |

Interesdunen kategoriaren deskribapena

## Datuen jatorria

Trataturiko datu pertsonalak hemendik datoz:

| | |
|---|---|
| Interesdunak edo beren ordezkariak | X |
| *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa* [Unibertsitate sinatzailea] | X |

## Datuen hartzaileak

Ikasleen datuen berri emango zaie (alta izapidetzeko) Gizarte Segurantzari eta *Unibertsitateko ikasleek praktika akademikoak Bizkaiko Foru Aldundian egiteko programa* aipatzen denari, ezarri behar diren legezko

betebeharrak betetzeko.

### Datuak kontserbatzeko epea

Hitzarmenaren egikaritzea betetzeko beharrezkoa den denboran zehar kontserbatuko da, bere berme-epean zehar hedatu eta legezko edo kontratuzko betebeharrak bete arte.

### Datuen tratamendua amaitzean datuak eskuragarri jartzea

Tratamendua amaitu ostean, honako hauek suntsitu behar dira (legez edo erkidegoko zuzenbideari jarraikiz arauz kontserbatzea baimentzen ez baldin bada):

5. Hitzarmen honen arabera ikusgai egon diren datuak jasotzen dituzten datu pertsonalak, euskarriak edo dokumentuak, kopiarik gorde gabe, betiere, datu horiek dagoeneko ez badira beharrezkoak eskuratuak izan ziren helbururako.

6. Hala ere, datuak gorde ahal izango ditu erantzukizunak sortu daitezkeen denboran zehar. Azken kasuan, datuak blokeatuta gordeko dira eta behar besteko gutxieneko denboraz. Gero, epea amaitu bezain pronto, datuak modu seguruan eta behin betiko suntsituko dira.

### Segurtasun neurri teknikoen eta antolakuntza-neurrien deskribapen orokorra

Informazio-sistemen kategorizazioa eta segurtasun-neurrien ezarpena, Segurtasunerako Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoaren eremuan arautzen duen 3/2010 Errege Dekretuaren arabera.

*INFORMACIÓN SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS EN CONVENIOS DE DFB*

*REGLAMENTO (UE) 2016/679 DE PROTECCIÓN DE DATOS y LOPD Y GARANTÍA DE DERECHOS DIGITALES 3/2018*

## Responsable del tratamiento y contacto

Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia
Gran Vía, 25 – 48009 Bilbao

## Persona Delegada de Protección de Datos

Jefatura de la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos
Gran Vía, 25 – 48009 Bilbao

## Derechos de la persona interesada

La persona interesada puede ejercer ante la persona Responsable de Tratamiento sus derechos de acceso, rectificación, oposición, supresión, limitación del tratamiento y no ser objeto de decisiones individuales automatizadas, mediante escrito dirigido a la Sección de Asesoramiento Jurídico, Seguridad de la Información y Protección de Datos en:

Sede electrónica de la DFB: https://www.ebizkaia.eus

- Registro Central de la Diputación Foral de Bizkaia (Oficina de Registro y Atención Ciudadana Laguntza: C/ Diputación, 7- 48008 Bilbao)
- Oficinas Comarcales de Atención Ciudadana de la Diputación Foral de Bizkaia
- Registros Generales Departamentales de la Diputación Foral de Bizkaia
- Lugares previstos en la Ley 39/2015

La persona interesada dispone igualmente del derecho a reclamar ante la autoridad de control pertinente, la Agencia Vasca de Protección de Datos.

## Finalidad del tratamiento

El tratamiento de datos que se deriva del convenio consiste en:

La utilización de los datos personales del alumnado para la redacción del convenio de cooperación educativa entre la Diputación Foral de Bizkaia y la [*Universidad Firmante*], para la gestión del propio "*Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia*" así como su posterior custodia.

Para la realización de este tratamiento de datos personales figura:

- La Dirección General de Régimen Jurídico y Función Pública de la Diputación Foral de Bizkaia en calidad de parte del Convenio y Responsable de Tratamiento.
- La [UNIVERSIDAD FIRMANTE] en calidad de parte del Convenio y Responsable de Tratamiento.

## Actividades del tratamiento de datos

El tratamiento de los datos personales comprenderá:

| | |
|---|---|
| Captura de datos | x |

| | |
|---|---|
| Grabación de datos | x |
| Estructuración de datos | x |
| Puesta en contacto con personas interesadas | x |
| Almacenamiento de datos | x |
| Consulta de datos | x |
| Cesión / difusión de datos | x |
| Destrucción de datos | x |
| Conservación de datos en sistemas de información del encargado de tratamiento | x |
| Copias de seguridad de los datos, recuperación de datos | x |
| Otros: y todos aquellos generados durante la prestaciones derivadas del cumplimiento del Convenio | x |

## Legitimación del tratamiento

10. Art 8.1 y 8.2 de la LOPDGDD.
11. Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público y Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca.
12. Convenio de Cooperación Educativa entre la Diputación Foral De Bizkaia y la [Universidad Firmante] dentro del "*Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia*".

## Categorías de datos personales

Indicar, qué tipo de datos personales se van a tratar en la ejecución del convenio:

| DATOS IDENTIFICATIVOS: | |
|---|---|
| D.N.I. /N.I.F. / Documento de | x |
| Nombre y Apellidos | x |
| Dirección postal | x |
| Teléfono | x |
| Firma | x |
| Fecha Nacimiento | x |
| Lugar de nacimiento | x |
| Correo electrónico | x |
| Sexo | x |
| Nº de la Seguridad Social | x |

| OTRO TIPO DE DATOS | |
|---|---|
| Datos de formación (Títulos, Académicos, diplomas, entre otros) | x |
| Económicos, Financieros y de Seguros | x |
| Datos sobre infracciones penales | x |

Descripción de la categoría de personas interesadas

## Origen de los datos

Los datos personales tratados proceden de:

| | |
|---|---|
| Propias personas interesadas o su representante | X |
| La [Universidad Firmante] del *"Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia"* | X |

## Personas destinatarias de los datos

Se producirá la comunicación de los datos del alumnado a la Seguridad Social (para tramitar su alta) y a quién refiera el *"Programa de prácticas académicas del alumnado universitario en la Diputación Foral De Bizkaia"* para dar cumplimiento a las obligaciones legales que incumban.

## Plazo de conservación de los datos

Se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la ejecución del convenio, extensión durante su plazo de garantía y posterior cumplimiento de obligaciones legales y contractuales.

## Disposición de los datos al terminar el tratamiento de datos

Una vez finalice el tratamiento debe salvo que se permita o requiera por ley o por norma de derecho comunitario su conservación, a destruir:

7. Los datos personales, los soportes y los documentos en que cualquiera de estos datos consten, sin conservar copia alguna, a los que se haya tenido acceso en virtud del presente convenio siempre que éstos hayan dejado de ser necesarios respecto a los fines que fueron recabados.
8. Podrá, no obstante, conservar los datos durante el tiempo que puedan derivarse responsabilidades de su relación con el otro Responsable del Tratamiento. En este último caso, los datos personales se conservarán bloqueados y por el tiempo mínimo, destruyéndose de forma segura y definitiva al final de dicho plazo.

## Descripción general de las medidas técnicas y organizativas de seguridad

Categorización de sistemas de información y aplicación de medidas de seguridad de acuerdo al Real Decreto 3/2010, del Esquema Nacional de Seguridad en el ámbito de la Administración Electrónica.

XXXXXXX Unibertsitateak sinatzaileei informazioa ematea kudeatutako datuei buruz

Lankidetza-hitzarmen honen sinatzaileen eta esku har dezaketen gainerako pertsonen harremanetarako datuak hitzarmena betearaztearen arabera tratatuko dira, bai eta legezko betebehar bat eta interes publikoko xede bat betetzearen arabera ere, helburua baita lankidetza-hitzarmen honetan xedatutakoa mantentzea, betetzea, garatzea, kontrolatzea eta betearaztea kudeatzea.

Era berean, alderdi sinatzaileek, interesdun diren aldetik, edozein unetan baliatu ahal izango dituzte datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, tratamendua mugatzeko, datuak beste inora ez eramateko eta erabakiak modu automatizatuan ez hartzeko eskubideak. Horretarako, Bizkaiko Foru Aldundira jo beharko dute (dokumentuan adierazitako bitartekoen bidez) informatzeko betebeharra betetzeko, eta/edo unibertsitatera, gaian erreferentzia gisa «Datuen babesa» adieraziz eta nortasun-agiri nazionalaren kopia erantsiz. Egoki denean, interesdunak erreklamazioa aurkeztu ahal izango dio kontrol-agintaritza eskudunari.

Datu horiek alderdien arteko lankidetza-hitzarmen hau indarrean dagoen bitartean tratatuko dira, eta, ondoren, gorde egingo dira bildu ziren helburua betetzeko eta helburu horretatik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboran zehar.

xxxx Unibertsitatearen ardurapeko datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, helburua honako hau dela jakinarazten da: «xxxx(e)ko Unibertsitateko ikasleen eta unibertsitate-tituludunen kanpoko praktika akademikoen eta/edo erakunde pribatu edo publikoetako enpleguaren programak kudeatzea, ikasle horien eta programetan parte hartzen duten enpresen edo erakundeen arteko hurbilketa ahalbidetuz». Interesduna alderdi den kontratu bat gauzatzeko, legezko betebehar bat betetzeko eta interes publikoaren alde egindako eginkizun bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak erabiltzeko legitimatuta egongo da. Halaber, hala badagokio, interesdunaren berariazko baimen informatuaren bidez legitimatuko da.

Información a los firmantes por parte de la Universidad de XXXXXXX en relación a los datos gestionados

Los datos de contacto de los firmantes del presente Convenio de Colaboración, y del resto de personas de contacto que puedan intervenir, serán tratados en base a la ejecución del convenio, así como en base al cumplimiento de una obligación legal y de una misión de interés público, con la finalidad de gestionar el mantenimiento, cumplimiento, desarrollo, control y ejecución de lo dispuesto en el presente Convenio de Colaboración.

Asimismo, las partes firmantes, como interesados, podrán ejercitar, en cualquier momento, sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento, portabilidad y a no ser objeto de decisiones automatizadas, dirigiéndose a la Diputación Foral de Bizkaia por los medios indicados en el documento para dar cumplimiento del deber de informar y/o a la universidad indicando como referencia en el asunto “Protección de Datos” y acompañado de copia de su documento nacional de identidad. En su caso, el interesado también podrá plantear una reclamación ante la autoridad de control competente.

Tales datos se tratarán mientras que se mantenga en vigor el presente Convenio de Colaboración entre las partes y, posteriormente, se conservarán durante el tiempo necesario para cumplir con la finalidad para la que se recabaron y para determinar las posibles responsabilidades que se pudieran derivar de dicha finalidad.

Respecto al tratamiento de datos personales del que es responsable la Universidad de xxxx, se informa que se realiza con la finalidad de:” Gestionar los programas de prácticas académicas externas y/o empleo en entidades privadas u organismos públicos de los estudiantes de la Universidad de xxxx y egresados universitarios, posibilitando el acercamiento entre éstos y las empresas u organismos que participan en los programas”, estando legitimado por ser necesario para la ejecución de un contrato en el que el interesado es parte, para el cumplimiento de una obligación legal y el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento. Asimismo, en su caso, se legitima por el consentimiento expreso e informado del interesado.

HAMABOSGARRENA:HITZARMENAREN INDARRALDIA.

1.- Hitzarmen honek 4 urteko indarraldia izango du, 2024ko urtarrilaren 1etik 2027ko abenduaren 31ra arte, praktika-programaren iraupenarekin bat etorriz. Hala ere, aurreikusitako epea amaitu baino lehen, alderdiek aho batez adostu ahal izango dute luzapena gehienez ere beste lau urtez luzatzea, 6 hilabeteko aurreabisuarekin; bestela, azkentzea adostu ahal izango dute.

2.-Sinatu duen edozein alderdik hemen hitzartutakoak eragina izan ez dezan denuntziatu ahalko du, aurreko ikasturteko martxoa baino lehen.

Hitzarmena deuseztatzeko eskaera idatziz egin beharko da eta ez du eraginik izango eskaera egindakoan lehendik egiten diren praktiketan, ikaslearen praktikak adostutakoa baino lehenago amaitzeari buruz ezarritakoa gorabehera.

HAMASEIGARRENA: HITZARMENA ALDATZEA.

Hitzarmena aldatzeko, bi alderdiek aho batez adostu beharko dute. Hala ere, zentro bakoitzaren premien eta eskakizunen arabera, II. eta III. eranskinei klausula berriak erantsi ahal izango zaizkie, baina betiere Bizkaiko Foru Aldundiak esparru-hitzarmen honetan aurreikusitakoa errespetatuz.

HAMAZAZPIGARRENA.-HITZARMENA AZKENTZEA

Hitzarmen hau bertan ezarritako jarduketak betez gero azkenduko da, bai eta azkentzeko arrazoiren bat gertatzen denean ere.

Hitzarmena azkentzeko arrazoiak honako hauek izango dira:

- Indarraldia bukatzea hitzarmena luzatzea adostu gabe.

- Sinatzaile guztien ahobatezko akordioa.

- Alderdietako batek bere gain hartutako betebehar eta konpromisoak ez betetzea.

- Epaile batek deuseztasuna adierazteko erabakia hartzea.

- Legeetan ezarritako beste edozein arrazoirengatik.

Kontrakoa erabaki ezean, eta betiere sinatzen duten alderdiei eta ikasleei ahalik eta kalterik txikiena egitea saiatuz, hitzarmena azkentzen edo deuseztatzen den

DECIMOQUINTA: VIGENCIA DEL CONVENIO.

1.-El presente Convenio tendrá la vigencia de 4 años, desde el día 1 de enero de 2024 hasta el 31 de diciembre de 2027, coincidiendo con la duración del programa de prácticas. No obstante, antes de la finalización del plazo previsto, las partes podrán acordar unánimemente su prorroga por un periodo máximo de otros cuatro años, con un plazo de preaviso de 6 meses, o también su extinción.

2- Podrá ser denunciado por cualquiera de las partes suscribientes con antelación del mes de marzo del curso académico anterior a aquel en el que se pretenda no surta efecto lo aquí pactado.

La denuncia del convenio deberá ser escrita y no afectará a las prácticas que ya se vinieran realizando en el momento de efectuarla, sin perjuicio de lo establecido para la finalización anticipada de las prácticas de la alumna o alumno.

DECIMOSEXTA: MODIFICACION DEL CONVENIO.

La modificación del convenio requerirá acuerdo unánime de las partes. No obstante, en función de las necesidad y requerimientos de cada centro, podrán añadirse a los Anexos II y III nuevas cláusulas, siempre y cuando respeten lo previsto por la Diputación Foral de Bizkaia a lo largo de este convenio marco.

DECIMOSEPTIMA- EXTINCION DEL CONVENIO

El presente convenio se extinguirá por el cumplimiento de las actuaciones que constituyen su objeto o por incurrir en causa de resolución.

Serán causas de resolución:

-El transcurso del plazo de vigencia sin haberse acordado la prórroga del mismo.

-El acuerdo unánime de todos los firmantes.

-El incumplimiento de las obligaciones y compromisos asumidos por parte de alguno de los firmantes.

-Por decisión judicial declaratoria de nulidad.

-Por cualquier otra causa prevista en las leyes.

Salvo acuerdo en contrario y siempre procurando el menor perjuicio posible para las partes firmantes y para los y las estudiantes, las actividades en curso en el momento de la extinción o rescisión del Convenio se darán por terminadas con carácter inmediato en el momento de la finalización del plazo de vigencia del

unean egiten ari ziren jarduerak amaitutzat hartuko dira berehala hitzarmenaren indarraldia amaitutakoan, 2027ko abenduaren 31n.

Hitzarmena bete eta/edo azkendu ondoren likidazioa egingo da, alderdi bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak bete diren zehazteko.

Hitzarmena ez betetzeagatik, alderdi batek ez dio besteari inolako kalte-ordainik ordainduko.

HAMAZORTZIGARRENA. JARRAIPENERAKO ETA GORABEHERAKO KONPONTZEKO BATZORDEA.

Praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezkeen gorabeherak ebazteko Jarraipen Batzordea eratuko da. Ikastetxeko bi ordezkarik eta Bizkaiko Foru Aldundiko beste bik osatuko dute batzorde hori.

Batzordeak eginkizun hauek izango ditu: gorabeherak ebaztea, proiektua betetzen dela ebaluatzea eta horren gauzatze-maila egiaztatzea, hobekuntzak proposatzea. Horiek guztiak SPAJLren 52.3 artikuluan jasota daude.

Batzorde hau eratzean, bi alderdiak txandaka arituko dira artezkaritzan, eta Bizkaiko Foru Aldundiari hasierako txanda esleituko zaio. Gutxienez, urtean behin bilduko dira eta bilera horren akta egingo dute. Erabakiak gehiengoz onetsiko dira.

Deialdiak, egin baino 15 egun baliodun lehenago egingo dira, eta zazpi egun baliodun aurretik, gutxienez, SPAJLren 48.4 artikuluan eskatutako gastuaren justifikazioaren dokumentazioa aurkeztu beharko da.

Batzorde horretan, egindako jardueren jarraipena eta lortutako emaitzak aztertuko dira, eta Erakunde honetan praktiketan dauden pertsonei laguntza-poltsa ordaindu zaiela egiaztatuko da. Adierazitako agiriak egiaztatzea finantzazioa ematen duen alderdiari dagokio nagusiki, hau da, Foru Aldundiari.

